

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Bidegintza g.e.k.
2. Sektorea:	Zerbitzuak (gizarte zerbitzuak)
3. Langile kopurua:	32
4. Webgunea:	www.bidegintza.org
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>BIDEGINTZAK Bilboko 5. barrutiko herritarren garapen pertsonal eta komunitarioa sustatzen du, baita bere jarduna barne hartzen duten Bilboko beste auzo batzuetako herritarrena ere; betiere, kontzientzia hartzean, parte-hartzean eta norbanakoaren zein komunitatearen protagonismoan oinarritutako lan komunitarioaren ikuspegia ardatz hartuta.</p> <p>Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none">• Laguntza, orientazio eta aholkularitza arloko baliabide hezitzaileak eskaintzen dizkie familiei.• Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden adin txikikoen gutxieneko beharrianak aseko direla bermatzeko lan egiten du.• Gizarte bazterkeria egoeran dauden adin txikikoen eta gazteen garapen integralean laguntzen du, haiekin eta haien familiekin antolatzen diren taldeko eta banakako prozesuen bitartez.• Gizarte babesgabetasun egoeran dauden kolektiboentzako guneak eta arreta esanguratsua eskaintzen ditu. <p>BIDEGINTZAK, bere helburuak erdiestera bidean, adin txikiko zein gazteentzako eta horien familientzako arreta, babes integral eta gizarte zein hezkuntza arloko esku-hartze zerbitzuak eskaintzen ditu.</p> <p>Garapen Komunitarioko ereduari oinarrituta eskaintzen ditu zerbitzuak, arreta pertsonal eta hurbiletik, haien protagonismo eta parte-hartzea bilatuz eta heziketa-lan global eta integrala garatuz, betiere profesionaltasunez, kudeaketa gardenarekin eta pertsonetan oinarrituta. Hala, Bidegintzaren esku-hartze ereduarekin koherente, garrantzia handia dauka talde-lanak, proiektuan parte hartzeak, Gizarte Sareko beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeak eta etengabe hobetu zein berritzeak.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidea:	
Helbide elektronikoa:	euskarabatzordea@bidegintza.org
Telefonoa:	944329123

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Langileen artean euskararen erabilera areagotzeko ekimenak
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<u>Euskalduntzerako jarrera proaktiboa:</u> Bidegintzak euskaltegietan dauden langile guztien matrikula ordaintzen du. Beste alde batetik laneko ordua kopuru bat euskarazko formakuntzan erabiltzeko aukera ematen du. Eta baita ere errazten ditu euskaltegira joaten diren langileei, ordutegiak malgutuz, norberak nahi duen ordutegian joan ahal izateko. Proposamen hau zuzendaritza taldearen proposamena da. Praktika honekin lortu izan da jendea errazago animatzea euskaraz ikastera joatea, eta hori dela eta Bidegintzako langileen ezagutza maila igotzea. Oinarrizko maila bat lortuz gero, euskararen erabilpena egunerokotasunean erabiltzeko aukera gehiago eman izan du <u>Euskatamari:</u> Langileek elkarri astero pasatzen dioten “pilota” moduko bat da, bakoitzak helburu bat hartu eta pilota handitzen doa. Helburua da langileen konpromisoa eta bakoitzak bere buruari erronkak jartzea euskararen erabilera areagotzeko. Ekintzaren azalpena: <ol style="list-style-type: none">1. Euskatamaria jaso Norbaitek pasatuko dizu Euskatamari-a edo agertuko da zure mahaian 2. Euskararen inguruan ekintza bat egin. Pentsatu zeozer egiteko euskararen inguruan eta aurrera eraman. Zure neurritan eta zure gustukoa:<ol style="list-style-type: none">a. Agurtu euskarazb. Telefonoa euskaraz erantzunc. Lankide batekin euskaraz egind. Koordinazio bat euskaraze. ...(izan zaitez kreatiboa)

3. Baloratu ahalegina eta handitu Euskatamari-a

Egin duzun esfortzuaren arabera gehitu zeozer Euskatamariari, itsatsi paper bat, plastilina, ... gehitzen duzuna egindako esfortzuaren isla delarik, horrela Euskatamariaren tamaina handituz joango da.

Nik ez dakit euskaraz ondo hitz egiten, baina hala eta guztiz ere telefonoa erantzun dut euskaraz... hau lotsa!.....hau lana!....baina ZORIONAK, lortu duzu pausu handi hori ematea, ipini ezazu adibidez, kartulina oso bat Euskatamarian, adierazteko hau asko kostatu zaizula.

4. Aste betean ez baduzu ezer egin denborarik edo gogorik ez duzulako izan, ez larritu, pasatu Euskatamari-a beste bati.

Ea zelako pilota lortzen dugun.

Epe bat jarri eta epe hori pasatzerakoan lortzen den pilota hori, pisatu, neurtu, kontatu zenbat material desberdinak....neurtzeko jendeak egin duen ahalegina.

Proposamen hau euskara batzordetik sortu zen.

Helburua da jendeak erabiltzea euskara, eguneroko ekintzetan eta norberaren mailara, ahalegina eta gogoetara eginda.

Emaitza kolektiboa da beraz ez dauka garrantzirik zenbat egin duen bakoitza.

Kafe hutsa

Astelehenetan kafea Bidegintzako sukaldean lankide guztiek batera hartzea da helburua, eta Kafe hutsa izenburupean euskara hutsez aritzea bakoitzak duen mailaren arabera. Egitasmoaren helburua da alde batetik hizkuntza praktikatzea, eta beste aldetik haien arteko hizkuntza ohiturak pixkanaka aldatzea.

Ekintza hau euskara batzordearen proposamen bat izan da

Bazkariak euskaraz

Astean behin, Bidegintzako sukaldean nahi/ahal duten lankideek batera bazkaltzea da helburua, eta euskara hutsez aritzea bakoitzak duen mailaren arabera.

Egitasmoaren helburua da alde batetik hizkuntza praktikatzea, eta beste aldetik haien arteko hizkuntza ohiturak pixkanaka aldatzea.

Ekimen hau langile batzuen proposamena izan zen eta euskara batzordeak burututa

Euskararen inguruan aurrera-pausuak islatzea.

Noizbehinka lankide guztiei erakustea Bidegintzan egiten ari diren aurrerapenak.

Askotan aldaketa txikiak gertatzen dira eta ikusezinak egiten dira...atzera begirada bat emanda nondik gatozen eta non gauden ikusteko eta hori erakusteko.

Memoria labur antzeko bat

Ekintza honen helburua de jendeari erakustea aldaketak lortzen ari direla eta bakoitzean bere eragina eduki duela, horrela aurrera jarraitzeko motibazioa lortu izan da.



Euskatamari

1. Euskatamari jaso
2. Euskararen inguruan gkintza bat egin
3. Baloratu gsfortzua eta handitu euskatamaria

Ea zelako pilota lortzen dugun



Euskara batzordena 2013-2018

diagnostikoa



Euskalduntze prozesuan



Bidegintzak finantziatu du
600 ordu/urtean
4.300 € inguru urtero



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA